

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

4396

AGINDUA, 2023ko irailaren 8koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa iragartzeko dena.

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzan hutsik dago goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua (520010 kodea, 92 dotazioa). Beraz, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102.2.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko txostena eman ondoren, sail honek erabaki du agindu honen eranskinean zehazten den lanpostua izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdia egitea. Hona hemen deialdiaren

OINARRIAK

Lehenengoa.– Eranskinean eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek eska dezakete agindu honen bidez iragartzen den lanpostua.

Bigarrena.– Hautagaiek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak, 15 egun balioduneko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideetan, datu pertsonalak eta egungo destinoa adierazi beharko dituzte.

Hirugarrena.– Lehiatzaileek, idazkiarekin batera, curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute, honako datu hauek jasoko dituenak:

- a) Titulu akademikoak.
- b) Administrazioan eta, hala badagokio, enpresa pribatuan betetako lanpostuak.
- c) Egindako ikasketen eta ikastaroen berri, dakizkien hizkuntzak eta izangaiaren ustez adierazgarri izan daitezkeen bestelako merituak.

Eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen frogagiriak aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako beste edozein agiri ere aurkez dezakete.

Laugarrena.– Deialdi hau, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren agindu baten bidez ebatziko da eskabideek aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik gehienez hila-beteko epean. Hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2023ko irailaren 25a, astelehena

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 8a.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

ERANSKINA

Deitutako lanpostua:

- Izena: Goi-kargudunaren idazkaria (520010. kodea, 92. dotazioa).
- Kokapena: Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza.
- Saila: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.
- Herria: Vitoria-Gasteiz.
- Kidegoak: C1 Administraria / C2 Administrari laguntzailea.
- Lanpostu-mailako osagarriaren maila: 18.
- Berariazko osagarria: VI-A.
- Hizkuntza-eskakizuna: 2.a.
- Derrigortasun-data: 2003-01-03.

Lanpostuan aritzeko eskakizunak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako karrerako funtzionarioa izanik, jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko eszedentzian egotea.
- Administrari laguntzaileen eskalakoa edo administrarien eskalakoa izatea.
- Adierazitako kidegoetako funtzionarioak ere aurkeztu ahal izango dira lehiaketara –eta, horrela, jarduneko zerbitzura itzuli–, baldin eta derrigorrezko eszedentzian, beste administrazio publikoren baten zerbitzuak eskaintzen, suspentso egoeran edo borondatezko eszedentzian badaude. Baina, horretarako, egoera horientzako ezarritako epea beteta eduki behar dute.